

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIKAK



Hamargarren *Korrika*ren hasieria

AEK erakundiak, bi urtetik behin, euskaldunketia inddarketako herririk herri antolaketan dauen **eten bariko ibillaldi eza-gunak igaz kale** egin eben, tamalez, izurritia zala-eta. **Aurten**, baiña, Amurrio eta Donostia bittartian jardungo daue antxintxikalarixak, ttipi-ttapa, gau ta egun, **martixaren 31tik apirillaren 10era arte**. Oñatitik sarritan pasau izan da **Korrika** eta herrixak ondo erantzun dau halakuetan. **Ediziño honetan San Prudentzioraiño hurreratu biharko gara** apirillaren batian, eguerdi aldera, lasterketa berezi horretan parte hartu gura badogu.

Egixa esan, **Oñatik hartu-emun estu samarra** euki dau euskeriaren aldeko martxa berezi horrekin. **Gauza jakiña da lehenengo Korrikiak** Oñatiko unibersidade aurretik **urten ebela 1980ko zemendixaren 29xan**, eguraldi txakurrarekin. Ordukua Kontzejupetik aldizkariko sail honetantxe gogoratu geben, 1911ko apirillian. **Baiña beste behin be abixau zan hemendik: 1997ko martixaren 14an eta Arantzazutik**, orain dala 25 urte, hain zuzen be. Hasiera haretan be euskaltzale ugari alkartu giñala akordaitten naiz.

Hamargarren **Korrika** haretako lehenengo metrotan lekukua eruan ebena aitta **Luis Villasante Kortabitarte** frantziskotarra (1920-2000) izan zan, **Arantzazu eta euskeriarekin aparteko loturia eukana**. Urtetuak eukan ordurako eta makal antzian ebillen osasunez, baiña pozik hartu eben parte Korrikiaren urteixeran. Ekiñaldi hori aprobetxauaz, AEK erakundiak eta Euskaltzaindiak **omenalditxua eskiñi otsain**, argazkixan ikusi leikienez. Ondo merezittakua, benetan. Izan be, Gernikan jaixo eta ixa bizimodu osua Arantzazun pasautako aitta Villasantek, batez be, **euskeria azterketan, lantzen eta aurrera atara guran egin zittuan bere ahalegiñik inportantienak**: idazlan ugariren bittartez, euskera batuaren prozesu nekosua bideraketan edota euskaltzainburu moduan 18 urtian. Oñatiko gaixen gaiñeko lan mordoskia be itzi oskun.

Argazki haundixan agiri dira egun haretako ekiñaldixan parte hartu euen batzuk: omenduaz gaiñera, **Jean Haritxelar** euskaltzainburua eta **Sebastian Lizaso** eta **Andoni Egaña** bertsolarixak, bestiak beste. Ondoren, antxintxikaldixak Arantzazutik Udana aldera jo eben eta, hamasei kilometroko tarte gorabeheratsu horretan, **Oñatiko talde, ikastetxe eta erakundetako ordezkari pillatxuaren eskuetan fan zan lekukua**.

Argazki haundixa udal artxiboko **Laixan** fondokua da. Eskerrik asko Izar Salaberri eta Kepa Elortzari samurtu doskuen informaziñuerengatik.